

Non dago Basques' Harbour

KOLDO IZAGIRRE

 **Susasa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1997 Koldo Izagirre

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1997ko apirila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

PORTUAN UME

UMEA ZEGOEN ETA

Eta Maria zegoen
Marinelen zuriak garbitzen zituen
Etxean inoiz aipatzen ez zuten Maria saskia bete
usain
Arropa bete bular umearendako

Eta Txantxilo zegoen
Ontzietan janaria zuen eskatzen
Espainiaren iduria itsusten zuelako debekatu zioten
ordea
Umeari xilofonoa jotzen irakatsi ahal izan baino
lehen

Eta Porfirio Díaz zegoen
Umearen zigilu batetik jalgitako izena
Avilestik honako ikatzontzia

Eta 30 tonako garabia zegoen
Ontzi ingeles batek txatarrarako ekarria
Bertan berriz osatua mekano erraldoi

Eta 30 tonako garabiak 200 tonako kontrapisua
dauka

Umea harrizko zilindro haren azpian dago argazkian
Sindikatu klandestinoaren ikurra bezalako gurpil
hagindunen bitartez jiratzen zuen

Eta Mitxelena zegoen

Whiskya non gorde behar zen irakatsi zion bertsolari
umezalea

Eta Alejo zegoen

Whiskya edateko umearen aurrean

Eta García zegoen

Egunero bere kanaberarekin zetorrena muxarrak
harrapatzera

Karabineroen eskuetan ez erortzearren
kontrabandistek

Jaurtitako whisky bonbilaz betea omen zegoen
hondoa

Eta umeak sinetsi egin zion

Eta karabineroak zeuden

Pipatzen irakatsi zioten eta

Umearen eskuetan Star batek tiro egiten du itsasora

Eta Gineako okume enborrak zeuden
Izurde hilak bezala uraren azalean
Umeak jauzi egin zezan batetik bestera
Bere ama izutuaren begipean
Bere aita harrotuaren errietapean

Eta Gineatik ekarritako tximinoa egon zen
Astebete keinuka oihuka harrika
Umeak askatu zuen arte
Trenbideko kableetan elektrokutatzeko

Eta kapitain galego bat zegoen kosakoz jantzia
Zartailuaren giderrean ziztu bat zeukana
Umearen ilean uxarka egiten zuten zakur daniarrei
deitzeko

Eta V-18 kostazaina zegoen
Langostino kaxaz betea
Nazioaren eremua gordetzeko
Espainiaren etsaiek armak lehorrera ez zitzaten
Umeak largabista ebatsi zion alferezari

Eta herriko arrantzaleek atarian ekarri zuten U-115
Urpekontzi abandonatu haren ondoan
Umea zegoen
Guztiak zaintzeko guztiak sortzeko

UME GOIZTUA

Stevensonen liburua irakurri baino aunitzez
lehenago
Piratak ikusiak zeuzkan labana gerrian
Dordoka Uhartean bizi zen umea
Alemanek eraztuna daramate belarri zulatuan
Kolonia edaten dute finlandiarrek
Hilero harrapatzen du trenak marinel hordiren bat
Geltoki ondoko etxetik datorrelarik
Eta harri kozkor odolduak hartzen zituen eskolan
erakusteko
Ortozik ibiltzen da V-18ko kubertan soldadu
bermeotarrekin
Holandarren besoetan ikasi du nola marraztu behar
duen emakume biluzia
Valletta Bristol Istanbul Maracaibo Bremen Oporto
Monrovia
Lagundu egiten dio konferentziak jartzen Stella
Marisko Maruxari
Portu guztietako prefijoak dakizki eta baita taxiaren
zenbakia ere
Filibustero aspertuek Seniorritas eskatzen
diotenerako

Yuri Gagarinen argazkiak munduaren orbita
Egin zezan baino aunitzez lehenago zen ikusia
Astronauta bat Manuel laneko jantzian
Itsaspeko Bidaiaren 20.000 Legoako portada hartan
bezala

Neil Armstrongek demostra zezan baino
Aunitzez lehenago zekien nola ibili behar zuen
Gizakiak ilargian Manuel daiberrak lehorrean bezala
Gaur ere ez zaidak azaldu olagarro erraldoia
Esaten zion 1930eko Siebe Gorman modelotik izerdi
malkotan sortuta

Baina hau aurkitu diat hor behean latoi distiratsu
bat

Burdina oker bat torloju herdoildu bat umearen
eskuan

Puska hauek Titanicen hondakinak dituk

Makarios artzapezpikuaren bizarrak
Edo Ethniki Organosis Kyprion Agonistonen historia
Multikopiatua ezagutu baino aunitzez lehenago
Umeak amets egiten zuen aberri batekin
Aberri guztiak bezala uharte aberri jatorrak bezala
txipi

GIZONEN ARTEAN

Moila bazterrean dago Gurutze Gorriko furgoneta
Kamaina prestatu dute marea oso beheara dago
Arazoak izan ditzakete gorpua ontzitik ateratzeko
Ongi lotuta lehorreratu beharko dugu
Esan du Marina Españolako alferezak
Umeari aldegitako aginduz
Eta orduan urduriagotu egin da
Egia baita beraz ontziak hildako bat dakarrela
Hildako bat ikusi behar du aurrenekoz
Kamaina batean lotua
Ito bat baino gehiago mugi ez dadin
Hildakoak arriskutsuak dira
Hildakoak motin bat egin du kapitaina akabatu du
Arruta aldatu nahi izan du
Hildakoak ezin du pirata ez izan
Hildakoak eskifaia guztia lepotu du
Eta ondoren biktimek bera urkatu dute noski
Ontziak hildako bat zekarrela
Utzi zioten entzuten behintzat estekariak
Kantinan erdiesaka ari zirelarik
Umearen urduria ikusteko
Umea gizontzeko

HODEIPEKO OROIMENA

Atzamarrek zura laztandu zuten haztaka
Gurutzefikatu baten zauriak bilatzen genituen
Zaharberritzaileak ginen eta ukimenetik
Korastak karelak tapikuak sortu ziren
Bonantzako Kristoren elizako ate berdean

Txalo egin genuen klarionaren hautsa kentzeko
Buruketa zail bat egin bagenu bezain harro
Petrilean jarri ginen argazkilariaren ondoan
Itxaron dezagun eguzkia hodeipetik irten arte esan
zigun

Argazkia egin zuenean hurbildu ginen ostera
Eta atzamarrak listuan bustita ezabatu egin genuen
Gure lana inork kopia ez zezan
Irakaslerik gabeko arbel miragarri hartarik

Trabesak egin izan genituen nork arinago marraztu
Buruz ikasi genituen ate hartako pailebotak
bergantinak goletak

Baina orain galdua dugu umeak gineneko itsutasun
argia

Zura margotua izan da aldiro

Baliorik gabeko Kristo bat balitz bezala

Polikromatuan hondoratu dira ontziak

Labankada haiek gure aitonen aitonek eskainiriko
otoitzak

Balira bezala Ternura baino lehen bonantza eskatuz

Eta gure atzamarrek ezin dituzte jadanik azalera
ekarri

ZIGILU BAT

Bonantzako eliza zaharrearan zeuden gordeak
Gure traineruak Donostian irabazitako piperpoto
guztiak

Onenak ginen itsas harroan eta herrian genuen
Francok eskua maizena emana zion patroia

Francok zeroi bat atrapatu zuen udaoro bezala
NODO albistarikoak etorri ziren filmatzera
Piztia Hernan Cortesek zekarren estiborrean lotua
Ongarria egiteko oparitu zion irin fabrikari
Caudilloak

Arrantzaleen etxe merkeak Francisco Francok
Inauguratu zituen eta senarra Dakarren
Galdutako batek É galego coma nos! esan zuen
Francisco Franco zuen izena auzune berriak

Goseak hil behar dik Frantziako jende horrek
Bota zuen behin Lesakako garabilari batek
Sindikatu bertikaleko buruzagiaren aurrean
Franco bakarra omen zagok munduan

Franco ez zegoen umearen bilduman Francok
Zigilurik handiena zeukan estibadoreen jangelan
Espainiako langileen otordua zaintzen zuen
Kristoren ondoan
Frankok uste zuen bakea ekarri zuela Francok

KOMUNISMOAREN BERRI

1936tik hona 30 urte bake datoz
Ez ditu hautsiko gerlaz geroztik
Portuan sartzen den aurreneko ontzi sobietikoak
Dimitri kapitainak pailota eskatu du
José Díaz du izena Odessako zamaontziak

— Bafore gorria heldu duk!

Ardora handia sortu da portuan
Komandantzian alerta eman dute
Moila batetik bestera dator albistea
Garabiek zeinuak egiten dizkiote elkarri
Estibadore guztiek nahi dute han

— Bafore gorria heldu duk!

Umea Marco Polo da orain
Veneziako kaietan ume
Urrunetik ekarritako berbei adi
Korapilo guztiak egiten badakiela erakutsiz
Txoren bat behar ote duten

— Bafore gorria heldu duk!

Badatoz karabineroak zurrun
Errusieraz jakin nahi lukete
Espainiaren urrea Moskuri eskatzeko
Kazetariak galdezka hasi dira Dimitrik
Espainieraz egiten du txatarra dakar

— Bafore gorria heldu duk!

Emakumeak zauzkatek makiniletan lanean
Esan dio karabineroak
Txanpon berri bat eskuan duen umeari
Horrelakoxea duk komunismoa
Ez dik ez ama ez alabarik errespetatzen

— Bafore gorria heldu duk!

Portuan inork ez daki errusieraz
Eta horregatik dakar José Díazek
José Díaz tximinian handi
Espainola du izena ontziak
Latin karakteretan irakurgarri

— Bafore gorria heldu duk!

Umeak ez daki zergatik daukan
Izen espainola ontzi errusiarrak
Eta José Díazen akordurik dutenek
Ahapetik egiten dute hitz
Division Azulen bolondres ibilitakoa da amanterua

— Bafore gorria heldu duk!

Oso gerora jakinen zuen ume izanak
José Díaz ez zela Porfirio Díazen anaia
Txalotu zuen errusiarren detailea
Zentralismo demokratikoaren arabera
Espainia baita gure portua

— Bafore gorria heldu duk!

1966ko kopekean daude igitaia mailua izarra
CCCP oinarri duen mundu-globoaren koro
Gauean malenkoniatsu biltzen ziren
Kantari marinela txopan
Oroitzapen hutsa den banderaren pean

— Bafore gorria joana duk!

GERLA AIZKORA

Eskuan du merkurio anpulua
Zianuro malko handi bat balu bezain liluratua
Bi hari sortzen dira anpulutik
Merkurioak bata bestearekin konektatutakoan
Voltioek bide egiten dute eta orduan
Tutuak jotzen du desorduan etzanarazi baitu umeak
anpulua
Moila transatlantikoan biltegia
Biltegiko dorrean erlojua
Erlojuaren barruan merkurio anpulua gaueko
hamarretan
Jo du tutuak zer edo zer gertatu da
Ihes egiten du banana pakek ebakitako karrika
usaintsuetan barrena
Gerlaontziko guardiako ofizialak
Zer gertatu da galdetzen duela
Zergatik ez da isiltzen tutua non da sua
Umeak destroyerra zelatatzen du tutua ez da
isilduko
Ez da isilduko Hernan Cortesen hezurak ikaratu
arte

KAPRITXO ZAILA

Beti nahi izan nuen koplaka ikasi
Lanbroak itsutzen du gure bokalea
Alferrik daude orain talaiko banderak
Ingudean mailuak eguna du hasi

Beti nahi izan nuen koplaka ikasi
Ortzadarra sortu du fuelak uretan
Gaur ez du beste deusik umeak gogoan
Hizkuntza arrotzean ezin du idatzi

Beti nahi izan nuen koplaka ikasi
Txintxorroen lotura erraz lasaitzen du
Hondoko baga beltzak azpitik jotzean
Kardala baretzeko neu nago moilarri

Beti nahi izan nuen koplaka ikasi
Entzuten nuenean Abante gustixe!
Urtu egiten nintzen uberari beha
Zer pentsatu ohi nuen neuk ere ez dakit

Beti nahi izan nuen koplaka ikasi
Zuhaitzik ederrena ontzi baten masta
Matzakuko parolak zazpi segundoro
Nire bihotzak baino lasaiago argi

PORTUKOPLAK

Aitortzen dizut portua dela
Nire aberri bakarra
Aitortzen dizut portua dela
Nire aberri bakarra
Hantxe daukat nik lastre handian
Oroitzapenen gabarra

Atako banda jo du txalupak
Umearen begipean
Atako banda jo du txalupak
Umearen begipean
Tanta gozo bat itsasorako
Hari agur egitean

Ontzi guztiei diosala ta
Tristura bat bihotzean
Ontzi guztiei diosala ta
Tristura bat bihotzean
Izen arrotzek herdoil zauriak
Bidaia gaitzen ostean

Baforearen tximinietan
Ez da izozten elurrik
Baforearen tximinietan
Ez da izozten elurrik
Portu batean jaioak ez du
Bide berrien beldurrik

Letrak esaten ikasi nuen
Ontzi arrotzen branketan
Letrak esaten ikasi nuen
Ontzi arrotzen branketan
Izen gazien ozentasunak
Munduramina hanketan

Txikotak largatzen zirelarik
Gaixotzen nintzen saudadez
Txikotak largatzen zirelarik
Gaixotzen nintzen saudadez
Faroen segak oraindik ere
Hil egiten nau gaudadez

Draga handiak ezin du hustu
Itsas hondoko taberna
Draga handiak ezin du hustu

Itsas hondoko taberna
Itoen loa hautsi du eta
Laster joko du galerna

Munduak ongi daki naizela
Euskaldun seme jatorra
Munduak ongi daki naizela
Euskaldun seme jatorra
Txipreko ontzi baten banderaz
Egina daukat atorra

Zazpi bandera zazpi mintzaje
Nire aberri bakarra
Zazpi itsaso zazpi zohardi
Nire aberri nabarra
Portuak beti digu amore
Kaian urtzen da aparra

Tristea baita gau ilunean
Baforearen tutua
Tristea baita gau ilunean
Baforearen tutua
Oroituz egin dizudan koplak
Tristuretan da gautua

LIBURUAK LEIHO

IGANDE GOIZEAN

Leioha itxirik dauka
Zigortua dago umea
Liburu zabaldu bati lotua
Leihora beha

Munduaren begia da etxeko portuan leiho itxi bat
Itsasketa kaierra da etxeko portuan leiho itxi bat
Leiho bat liburuan
Leiho bat bihotzean
Arruta erratu duten ontzien babes
Leiho itxi bati beha
Leiho itxi bati buruz

EUSKAL LITERATURAREN HISTORIA

Liburu hau da Ixasoco Nabigacione
Eta irakurri egiten ditu umeak nekez lapitza eskuan
Capitan d'Oyarçabalen biaya venturosak
Arrutak zundak brasak probizak
Dena da ongi muilatzeko artamenduak
Hondoa ez jotzeko aginduak
Eta ez du deus aurkitzen ez pilotuaren malurarik
Ez maisuaren ikararik ez Martin d'Oyarçabalen
mentura goserik
Ternura! esaten zuenean branka hartuz lur berri
bati

Egia izan behar du ordea Ternura heldu ginela
Mundu honetan argazkiak hor daude
Hilarriak hor daude eta hemen dauzkagu
Unibertsitari kanadar bekadunen tesiak
Eliza bat kantariendako frontoi bat mozkorrendako
taberna bat

Poetendako ez da leku txarra idazteko umeak gerora
bere artean

Ontziratzen ahal ditugu Capitan d'Oyarçabal guztiak

Biaya venturosetan urrun daitezen guk

Lapitza eskuan deitoratu ahal izateko indiano
salbaiak

Suntsituak izan zirela baina oraindik ere

Badauzkagula balearen batzuk literatura bat
sortzeko

TOPONIMIA

On Ramon de la Sotari seme-alabak baino
Ugariago zetozkion ontziak
On Ramon de la Sotak zekien euskara baino
Gehixeago jakin behar zen bere ontzi guztiak
euskaraz izendatzeko

Euskalduna ontziolako nagusia zen arren
On Ramon de la Sotak On Resurrección María de
Azkueri

Egin zion galde zer izen ipini ontziei
Eta Euskaltzaindiko lehendakaria izanen zenak
Bizkaiko mendien zerrenda eman zion ontziak
bataiatzeko

Jata Mendi bizirik irten zen I. Mundu Gerlatik
Genova Bordele Cardiff Marseila mina guztiak
libratu zituen

Baina 1936an zahartua zegoen pikategian zeukaten
Eta nire portua hartu behar zuten faxistei traba
egitearren

Bilbotik ekarri zuten irailak 12 arratsaldeko 4etan
Irten ziren ontzi guztiak 140 baxurako eta 3
bakailaoketari

Jendez beteta portua hutsik faro guztiak itzali ziren
tiroka

Jata Mendi atoian eraman zuten bokaleraino eta
Esan ohi da pailotak nahita egin zuela maniobra
oker

Hondoa jo zuen korastak Kalaburtzan trabes gelditu
zen

Ez zuten guztiz hondoratu ahal izan baina
Faxistek mendiz hartu behar izan zuten portua

Teknikari alemanak etorri ziren Hamburgeko
Bugsier etxetik

350.000 marko urre eskatu zuten garestia zen
gerlak asko behar du

Eta orduan Ondarroako Manzisidor azaldu zen
Bere hiru semeekin 120 egunean aterako zuela
hondoratutako zatia

Beste 50 behar izanen zituela korasta pikatzeko
Merkeago zen bere eskaintza eta esleitua izan zen
Baina Armada Altxatuak gerlaren premietarako
bahitu zizkion

Talde autogenoak bokalea garbitu orduko eta Jata
Mendiren korasta

Lehorrean gelditu zen izena brankan zuri

Heinkelek bonbardatzen zuten Jata mendia bezain
egoskor

Toponimo baten setaz

Mendeen gainetik 1936ko irailetik 1937ko abuztua
arte

L'OCCHIO DEL CICLONE

Seven Seas Spray ontzi pirata baten izena
Iduritzen zaio umeari eta hala izaten ahal zen
Peter Captain esaten zioten Roberts kapitainari
Eta pirata izaten ahal zen benetan
Bilboko blokusa hautsi zuen faxisten mehatxuen
beldur gabe
Penartheko galestarra zen Roberts
Itsasoa txalupa hutsez betea zegoen
Eta eskurik gabeko arraunez esan zion Peter
kapitainak
Karabineroen eta gurasoen ezkutuan
Orain umeak irakurtzen duen liburua ren egilea izan
zen
Birmaniako gerlan hildako George Steer kazetariari
Ez zegoen euskaldunik itsasoan
Azken euskaldunak Santoñan zeuden preso
Tropa italiarrei eman eginda Mancini
Jeneralarekin adosturiko baldintzetan
Ez zen inoiz euskaldun zoriontsuagorik egon
Libratuak omen zeuden bi Espainetarik

George Steerrek idatzi zuenez
Euzko Gaztedi-Resistencia Vascak argitaratuan
Eta umeak apuntatu egin zuen hartaz poemaren bat
egiteko noizbait
Libratuak zeuden bi Espainetarik
Baina zazpi itsasoetako bisutsa harrotzen hasia zen

POETA NIRE SORTERRIAN

Banan-banaka aztertu izan ditut nire sorterriko
arrokak

V.H. hizkiak markatuak izan behar dituenaren bila
eta poetak hareharrian

Aurkitu zituen biztanleen galde ipotx mokodunak
Aurpegi biko mustroak batean negar eta bestean
barrezka ari

Erraldoiaren hezur sakabanatuak

Idi muturra duen idoloa apo handia enbata putz
eginez

Eta ez dut poetak ikusitakorik deus ikusi izan

Azken aldian udalak piknikatzeko paratu dituen
mahaietarik batean jarrita

Poetaren omenez idatzi nuen beheko kaietan

Ikusten nituen gruak Eiffel dorretxoak zirela apal
batean eskainiak

Etixeratutakoan Petit Roberta hartu nuen
anakronismoa baieztatzeko

Victor Hugo izeneko jaunaren begiek ez zuten ikusi
ahal izan Eiffel dorrea
Kontsolatu nintzen omenaldia mendeku bihurtuz

VICTOR HUGOREN PLEINUA

San Pedrotik San Juanera itsasoa da sortu
Maitasunaren malurek bertan dutela portu
Batelari beltzaranak
Nire bihotza zor du

San Pedrotik San Juanera itsasoa da labur
Igerian pasatzeko ni ez naiz haren beldur
Batelari beltzaranak
Mesié esan dit maltzur

San Pedrotik San Juanera itsasoa da hotza
Bertara jaurtita ahal zait epelduko bihotza
Batelari beltzaranak
Askatu du mototsa

San Pedrotik San Juanera itsasoa ilunik
Bere tostan jar ahal nendin diot gaur eskatu nik
Batelari beltzaranak
Ez dit utzi arraunik

San Pedrotik San Juanera itsasoa da gora
Masta goietan egin du haizeak heiagora
Batelari beltzaranak
Lotsak bildu du gona

San Pedrotik San Juanera itsasoa da bera
Uhinetan dabilenak bi santuei kandela
Batelari beltzaranak
Arina du batela

San Pedrotik San Juanera itsasoa da lehor
Maitasunaren zoroak barkatzen ez du nehor
Batelari beltzaranak
Ez omen dit ezer zor

San Pedrotik San Juanera maitasuna da zeken
Urrikirik nahi duena ez bedi hurbil zeren
Batelari beltzaranak
Ez daki hori zer den

BATELARIAREN HARROTASUNA

Baina ni batelaria bera nintzen
Eta ez idazle bat

Maiatzetik udazkena artean turistek
Maiz hartu ahal izanen dituzte argazkian batelariak
Dorék edo Wilkinsonek edo Regoyosek eginiko
apunteetarik

Atera dituzte jantziak

Lastozko kapeluak eta gona biziak

Ongi ematen dute herriko festetan

Arkupe egiten diete arraunekin ezkonberriei elizatik
jatetxeraino

Eta orain batelariak berek uste dute

Inoiz Victor Hugo jauna eraman zutela txalupan

Eta ez idazle bat

Hastio dut Proventzako manera

Hastio ditut arraunak eta pintzelak

Senako bazterrak baino akuarelatuagoak daude

Nire sorterriko txalupak eta kaiak eta arrantzaleak
Ez dut haietan aurkitzen nik behar dudan artea
Antzinago daude nire erresumak
Armorikan Eskozian Walshen Erianen
Bardo zaharren maluretan
Batelaria bera nintzen
Idazle bat neramalako kontzientziarik gabe
Kerneko dialektoan kantari
Ha malloz-ru d'ar C'hallaoued!
Hori bai dela bertso eder bat mesié Hugo
Inbokatzen dut Amergin inbokatzen dut Cadwallan

Poesia bihotzaren portutxoa ere bada
Baina ni batelaria bera naiz
Eta ez idazlearen pertsonaia typique bat

LANGUE ET CIVILISATION FRANÇAISES

Zubirik ederrenak ura du egarri
Paris aileza Senak laztan harriz harri

Entzun ezazu Villon zer dioskun urak
Biltzen direa inon inoizko elurrak?

Robespierrek lepotik isuri du Sena
Itsaso da geroztik ibai izan zena

Geroak izanari hartuko dio gain
Elurrak biltzen dira maitasunaren zain

Zubipetik bagoaz Komunako hilak
Uraren abaroz maitale sotilak

Belaunetaraino da Sena odolarri
Zubirik ederrenak hura du egarri

ONTZIA METAFORA

HISTORIAREN EUSKAL LITERATURA

1626 abuztuak 5 Atlantikoan 40 tonako ontzi
merkante bat

Polingeneko portutik dator zama desberdinekin
Nazionalitate zehaztugabeko batek jarraitua
Tripulante irlandarrek pirata turkoak dituztela uste
dute

Eta babestu egiten dira Bearehaveneko gaztelu
zaharraren harresien ostean
Lehorreratzen dira bizia salbatuz eta ontzia
abandonatuz

Galwaykoa —irish Gaillimh— zen merkataria

Heldu dira piratak txalupa batean eta bela nagusia
eramaten dute

Egiten dituzten oihuengatik kantuengatik turkoak
zirela

Esan zuen legoa asko eginiko lemazain ohi batek
Daniel O'Sullivan da ofizial nagusia Bearehavenen
Ehun gizon biltzen ditu burdinak eta makilak
banatzen dizkie

Jazartzen zaizkie turkoei eta hanka eragiten diete
Beare uharteraino

Galwaykoa —irish Gaillimh— zen merkataria

Beareko behiek ikusi dituzte turkoak hanka bustian
heltzen

Bearehaveneko irlandarrek turkoak uxatzen dituzte
Eta turkoek behiak Bearen bertan utzi behar dituzte
Ardoz ito ez zirenek Atlantikoz behar izan zuten ito
Ito ez zirenak behintzat beren ontzira heldu ziren
Ebatsiriko bela nagusiak zerbitzu ederra egin zien
Galwaykoa —irish Gaillimh— zen merkataria

Ontziratu dira ostera irlandarrak eta miaketa
Egin ondoren ikusi dute bela nagusiaz gainera
3 kupel bete oportu eta 40 dozena lapiko dizkietela
eraman

Eta mareak turko itoak ekarri zituenean
Ikusi zuten turkoak ez zirela beltzak
O'Sullivan bezain kaskagorria zen bat
Galwaykoa —irish Gaillimh— zen merkataria

Baina inork ez zituen ezagutzen eta ezin jakin izan
zuten

MAITALE ABANDONATUA

Aarrantza gutxiko marea batean
Aurkitu zuten nire herriko arrantzaleek
Seinaleak egin zizkioten mezuak igorri zizkioten
U-115 Kielgo matrikula ageri zuen
Hurbildu zitzaizkion garai batean
Beren arbaso kortsarioak bezain ausart
Bafore abandonatua zelada bat da beti
Beldurrez hurbiltzen gara
Lotu behar dugun maitaleraino
Lotu zioten estatxa
Azalean zegoen urpekontziari
Atoian ekarri zuten inoiz balea bezala
Engrasadoreak balioko guztia ebasten zuen artean
Kostak pipa bat aurkitu zuen
Deustche Werke etxeko diesel motorrak zeuzkan
Kableak amore ematen zuen aldizka
Uhinek maite dituzte maitale abandonatuak
Azalera etorritako itoak
Eta uhinek berek kentzen zioten amorea
Tinkoan egin behar da atoa

Maitasuna amorearen aurka bezala
Maitale bat zekarten uhinek atoian
Gatoz maitasunera

ONTZIA ONTZI BARRUAN

Iñigo Aranbarriri zor

Umea urpekontziaren barnean ibiliko da
Kopenhageko Museoan
Berreginiko Balaena Biscaiensisen hezurduran
barrena
Dabilen umea bezala miresturik ikaraturik
Eta oraino ez daki Biblia
Irakurri ez duen Baleak irentsiko ninduela
Maitea gatibu naiz Balearen
Barnean egon nahi nuke libre
Kanpoan egon nahi nuke gatibu
Balea barnean eramateraino neu
Balea egiteraino

ONTZIAREN SEMANTIKA

III. Reicheko teorikoek diote urpeko borroka
Kortsarioen gerlaren berpiztea besterik ez dela
Ahulek indartsuenaren aurka asmatu-
legezko-
tasuna
Arme-
gek gehiago egin omen dute berdintasunaren
alde ber-
bek baino
Eta ume batek ezin du zain egon jostailua mustu
gabe
Agindu zuzenak etorri artean bere erantzukizunak
Hartzen ditu urpekontzi aleman bat dauka
agindu-
etara
Ingalaterra guztien salaketa bereganatzeko
Handiek ezlegezko-
tzat hartu-
riko arma
Humanitateak kondenatu egin duen asmo baten alde
Besterik ez dut behar XXI. mendeko portu neutralak
Ikaratuko dituen iduri bortitza egiteko
Urpekontzi nazi bat kapitulatu nahi ezik
Eta haurtzaro luze batek TBOetan irentsi zuen Otto
eta Fritz

Guztien ankerkeriaz armaturik munduratuko naiz
Demokrata zintzoen kondenari bularra zabalduz

Deabrua ez zaigu inoiz bidera irten hitzarmenik
eskaintzeko

Gure itzalak ez du balio ez dut uste arimarik
daukagunik

Ahulegiak gara infernukoek kontuan har gaitzaten
Itsasoratze hau ez da madarikazio eternal bat beraz
Indar koerlazioaren ondorioa baizik
1959an II. Mundu Gerla aspaldian amaitua zen
Baina Otto eta Fritzen fantasmak hantxe zeuden
Torpedoen hodiedtan gordeak ume baten belarrira
gozo

U-115 urpekontzi abandonatua Gran Solen
XX. mendeko azken balea kuadranteko kaian lotua
Bitakora kaier berriak idatzi nituen
Meridiano guztiak antolatu nituen oster
Jazarrerako hodi hutsak hornitu nituen
Marinela izandako guarda alkoholikoaren antzeko
Fantasma bizartsuen eskifaia erreklutatu nuen
Gorila sarjentoa Johnny tenientea Eisenhower
jenerala akabatzeko

Ez dakit itsasoak zentzu historiko bat emanen digun
Nire herritarrek beti nabigatu dute drapo arrotzen
pean

Gerlari trebeak izan dira lan-indarra nornahiri
saltzeko eta bake aroan

Hemen beti eman izan zaio apaizari balearen mihia
Menturaz Mendebaldearen madarikazioa hartu
beharko dugu geure gain

Bete gabea daukagun zeregina kunplitu ahal izateko
Baldintza objetiboen gainetik dago heresiaren lilura

KRIEGSMARINE

Hator gurekin Telemakus
Itzul gaitezen etsai iraganeko kaietara
Hator gurekin Horuk
Niza ikara batean da bizargorrioren zain
Hator gurekin Piet Hein
Ibarretan entzuten da zilarrezko tronpeta
Hator gurekin Nemo
Ahab guztiei justizia egitera
Baleok taldean suizidatzen gara
Hator gurekin Drake
No peace beyond the line oroitaraziko diogu
Bihar meridianoa hautsi behar duen Queen Maryri
Hator gurekin Lafitte
Euskal kortsario guztiak urkatu behar ditugu
Zatozte gurekin
Historiaren hondoko bezero guztiak
Laster ageriko da geure periskoparen gurutzean
Hernan Cortesen ontzia Kristo azken zauriaren eske

KOMUNIKATU ATZERATUA

Joxe Azurmendiri zor

Aldarrikatzen dut

Aldarrikatzen dut

Armada Invenciblearen galerna

Aldarrikatzen dut

David Livingstoneren sukarra

Aldarrikatzen dut

Vasco da Gama hiltzeko konplota

Aldarrikatzen dut

Americo Vespuccioaren nekea

Pearl Harburreko suntsipena

Lope de Agirreren zorotasuna

Aldarrikatzen dut

Prien komandantea

Royal Oack hondatu zuenean Scapa Flown

Aldarrikatzen dut

Morgan

Nihaurk lepotuko dudan traidore bat

Aldarrikatzen dut

Magallães kutsatu zuen pozoia

Txurrukaren zangoa eraman zuen bala

Amundsen hil zuen izotza

Elkanori mundua itzularazi zion ikara

Aldarrikatzen dut

Okendo guztien estatuak botako dituen haizea

Estatu guztien Okendoak botako dituen haizea

Aldarrikatzen dut

Espainiaren urre guztiaren galera

Aldarrikatzen dut

Rimbaud izeneko espiaren sifilia

Aldarrikatzen dut

Greenwich meridianoa suntsituko duen eztanda

Aldarrikatzen dut

Eta aldarrikatzea bera egin dut helburu

Bihotzaren alde iluna izeberga ez badut ere

Etorkizuneko Titanic guztien hondamendia

Aldarrikatzen dut

Aldarrikatzen dut

Aldarrikatzen dut

Aldarrikatzen dut

Eta aldarrikatzen jarraituko dut

Hondoratuko nauen mäelstrom gozoa

Aldarrikatuz

IDURIAREN MUGA

Ez naiz exiliatua ez naiz atzerriratua ez naiz
iheslaria

Ez naiz gerlaria baina umea itsasoratu egin zen

Montevideo berritarako joalea naiz

Eta metaforari bizia ematen ikasi nuela esanen banu

Ez zenukete zertan zuzendu behar

Ez naiz itzuliko ezin dut itzuli

Aditz honen adiera guztiak dira onak zuen bertsioan

Egokia izanen da labirintu gaziari buruzko oin-
oharra

Borgesen aipamen baten emaitza zarete denak

— This is not the Plymouth ferry !

Portu bat dudala aberri esanen dut adibidez

Zerbait galdu nuela kairen batean

Niregandiko zerbait gelditu zela

Despedidarik gabeko abiatze batean

Ez dakit zer ez dut inoiz jakinen

Eta hau ez da mehatxu liriko bat

Maitale ukatua bezala sasitartzera noa hondoratuz

— This is not the Plymouth ferry !

Idazten ahal dut ez zela hau nik espero nuen ontzia
Kritikoek maite duzue heterodoxia
Itzul ezazue itzul ezazue lotsarik gabe
Hondora doan ontzian
Hondora doalako noa
Ni porturik ez duten Montevideotarat
Menturaz ez dut inoiz helburu joko
Nik dakita nora naramaten ez
Zuzen ezazue mesedez nora noan
Itsasoratu egin nintzen behintzat eta ez naiz gelditu
kaian
Betiko koplak epela gogoan ontziratuko banintz
Bezalako hasperenak eginez

— This is not the Plymouth ferry !

— This is not the Plymouth ferry !

EUSKAL HISTORIAREN LITERATURA

Orduan pirata turko haiek hasi ziren kalapitan
Nola esaten zen euskaraz noeud coulant hau da
Orduan pirata turko haiek hasi ziren kalapitan
Nola esaten zen euskaraz nudo corredizo
Nik ez baitakit turkieraz
Urkabilurra lakirioa sokalasterra

Ahalbait adierazi behar dizuet parabola hau
Eta dotore ematen duenez eman dezagun
Jamaican ibilitako turko haietako batek
Bazekiela slipknot esaten ere
Garaitzaren atxurrak ez bazion akordutik eraman
Urkabilurra lakirioa sokalasterra

Orduan bada pirata turko haiek hasi ziren kalapitan
Eta zinez turkoak zirela uste izan zuen
Arestian abordatua eta lotua zeukaten almiranteak
Ez baitzuten nire irakurleek bezala
Noeud coulant edo nudo corredizo edo slipknot
esaten baizik
Urkabilurra lakirioa sokalasterra

Halako iskanbilan non atxilotuak une batez
Pentsatu izan zuen turkoen eta hurkoen arteko
Istilua zela batzuek ez zutela urkatu nahi
Politikoak zirela eta ohartuak zeudela nonbait

Grande

De España batek gehiago balio zuela loturik zintzilik
baino

Urkabilurra lakirioa sokalasterra

Eta bere buruari kuraia ematearren edo
Idatziko zuen kronika exotikotasunez janzteko
Hitz arrotz haiek hartu nahi izan zituen gogoan
Pirata turkoen zaunka hartan entzuten zituen
Lehen hitzak entzuten zituen azken hitzak
Urkabilurra lakirioa sokalasterra

GELTOKI ONDOKO ETXEA

UDAKO OPORRAK

Kaietarik haratago eramaten gintuen itsasbeherak
Harrotua egiten genuen basadian xixareak agerian
uzteko

Baina arrainak beitatzea aitzakia hutsa zen
Mareak emakume biluzia erakusten zigun
Itsaspean lehor geldituriko txaluparen idurian

Alkitrana kresala egur usteldua aingira hilen bat
Eguzkiak zoragarri loditzen duen usaina
Gure berba bakanen fumetiak dira kaioak
Lohitan gelditu dira jostailuzko arrasteluak
Esku bat hurbildu zaionean helizearen metal
distiratsuari

Helizeak makestua dauka hegala enborren bat joko
zuen

Dio norbaitek edo naufragoaren burezurra
pentsatzen dugu denok
Hatz-niniek hotzikaraz laztantzen dute metalaren
ahoa

Batzuetan itsasoak gorbela uzten zituen helizearen
doratuan

Sarkorragoa zen orduan usaina errazagoak ziren
orduan konparantzak

Lau ordu aspertu lau ordu lizun basadia estali arte
Urraburuak harrapatuko genituen kabuxek nahi
bazuten

Eta bezperan trakets bilduriko guta askatzen
genuelarik

Itsasgoraren olaxtak laztantzen hasiak ziren
Txaluparen sexuari ematen genion begi amuak
haragian

ARRISKUAK

Fordson Major berriak sei eta zazpi bagoi
Garraia ditzake beteak ez baldin badaude
Baina traktoreko txoferrak ikusi eginen luke
Itxaron egin behar du Compound lokomotorak
Bultzaka ekar ditzan trenbide geltokiraino fistu
eginez

Trabarik gabe behar ditu karrilak
Orduan umea engantxadorea bezala jarri da geldirik
Bagoi geldiaren topeen artean badator trumoia
Talkak burdina guztiak iratzarri ditu umearen
begiak itxiz

Bizirik dago lasterka hasi da bagoien artean
atxilotua

Abiada moteldutakoan makurtu eginen da
Aurreko eta atzeko bagoien firrilen artean
2 metro daude 20 km orduko 1/2 segundo dauka
Alkortari bezala gerta ez dakion

Ez beha hona esaten dio soldadoreak itsu geldituko
haiz

Sopleteak txapan sorturiko pindarrek liluratua
gelditzen delarik

Geltoki ondoko etxeko argi urdin-arroxei emana
bezala

Handik datozen marinelei pausoak hartzen hasi
baino lehen

Trenbideak iragaiten ahal dituztenek

Portu barreneko bagoi ilarak dauzkate zain

Burua non duten jakitea zaila den suge hiltzaileak

Ezin dituzte azpitik tronpatu umeak bezain zalu

Itsasbehera baldin badago laban egiteko arriskua
dute pasarelan

Ez dira gauza sokari heltzeko eta ahantziak daude

Bagoi baten astunaz laztantzen duela aldiro

Ontziaren sabelak moilaren bazterra

Amore baten astunaz datoz marinelak geltoki
ondoko etxetik

Inor ez da sartu bezala irten

AZAL ALDAKETA

Labana xardearen hortz artean sartuz ebakitzen du
Aitak haragia egunkariaren testu erdian
Ageri diren ardo tantek hitzik ederrenak estaltzen
dituzte
Duela astebete ekarri dituzten bi solairuko trolley
ingelesetan
Ezkutatzen naiz ilunabarrero azetileno bonbona
hutsak
Etzanda metatzen dituzte biltegi berriko pareta
bazterrean
Ez dakit estatxa kiribilduek hartzen dituzten formek
Edo minioak kalamuan utzi dituen arrastoek
ikaratzen nauten
Atelier mekanikoan eskuak garbitzeko daukaten
hareak
Zuztarreraino lazten nau kotoiaren hari koloredunak
Baino gozoagoa dut orain haren koipe usaina
Herrian ez didate sinesten paper orea egiteko
ekarritako paketan
Argazkirik ez dagoela esaten diedanean
Aurten negar egin dut urtezaharrez portuan

Loturiko ontzi guztiak tutuka hasi direnean
Ez dakit emakume biluzia holandarren besoetan
Ageri den bezalakoa den zinez banan-bana
Kentzen ditut etxeko xaboieta ageri diren ile
kirruak

Kantinako neskameari sobera gelditzen naizela beha
esan didate estekariak

Bagoi arren eta bagoi emeen arteko talka marrazten
saiatu naiz

Geltoki ondoko etxea ez da beti egon hor

BIDAIAK

Londresko karriketari aspertuta hona ekarri dituzte
eta

Trolleyek hemen egon beharko dute lineak berri
arte

Umeak behaleku bat eduki dezan bigarren solairutik
Geltoki ondoko etxea zelatatzearren alferrezari
ebatsitako largabistarekin

Sarrerako eskailerak ditu begipean atea hiru leiho
Beti itxiak egunez lo daude noski etxe hartakoak
Ez datoz Maria bezala arropa zikinaren bila
ontzietara

Garbi jantzita joaten dira hara estibadoreak
marinelak estekariak

Geltoki ondoko etxeak ontzi izenak dituztela
entzun du

Gezurrezko izenak dira portuoro aldatzen dituzte
Bandera berria hartzen duten ontzi piratak dira
Amak ez bezala erakusten dituzte bularretakoak
zintzilik idortzen

Hizkuntza guztiak dakizkitez pipatu egiten dute
Edo menturaz mututu egin dituz madama ankerrak
Batuetan argi motel bat pizten da leihoren batean
Errainu bat ikusi uste izan du emakume biluzia ilea
orrazten

Badaki beltza dela bat argia osterat itzali denean
Blakaz margoturiko azetilenon bonbonak etorri
zaizkio gogora etzanak
Halako leuna izanen da urpekontziaren sabela
Bagoiak talka hasi dira estatxa apurtutako
zamaontziak bezala

Ozendura urrunetan ikaratzen dira kaiak
Londresko zubian bezala ikaratzen dira trolleyak
Hala ikaratzen dira noski geltoki ondoko etxeke
gelak

Maitaleak wagon-litetan portu urrunetara
daramatzaten trenen amorruan

BANDERAREN ZINA

Günter hartuko dut izena bolondresa izanen naiz
Kondenatu baten alaitasunaz harrikatuko ditut
Bidean agurtuko nauten epelak
Emakumearen ikarak ekarriko nau gerlara

Günter hartuko dut izena U-115 urpekontzian
Kermeza batean bezala eginen dut dantza
Etsaien hondo-kargen artean algaraka
Hordituaren harrokeriaz irainduko zaituztet

Günter hartuko dut izena bagoi bati helduta
Hurbilduko naiz geltoki ondoko etxeraino
Trenbideak balira bezain lasai iganen ditut
eskailerak
Etsaiaren hondoratzea argazkitan hartzeko bezala
dorrera

Günter hartuko dut izena eta portu okupatuak
Etxe gozo bat edukiko du geltoki ondoan
Heriotzatik banentor bezain ezaxolatua
Pastis bat eskatuko diot edozein Moniqueri

Günter hartuko dut izena III. Reicharen
Legea ezarriko dut ume baten ikarak mendekatzeko
Menturaz ez natzaizu eder izanen baina
Günter hartuko dut izena eta maitatu beharko nauzu

**GÜNTERRÉN
MALURA**

Maitatzea beti da hondoratze bat
Maitaleek ito nahi ez dutenean
Konpreni ezazu aspaldian nengoen triste
Berba mingarrietan esan dizut behako txipitan
Esan dizut dena okertzen zaigu inork maite zaitut
Esaten dizun gauean beti baitago besteari
Luzaturiko galdera bat mezu bakoitzaren azpian
Isiltasunezko erantzunez galdetuagoa

Urdinegiak gara amorezaz gozaten dugunok
Ezin baitu perfektua ni maite nauenak
Ezinago maite ez nauenak
Edan edan egiten dut badago ohe konpartitu bat
Onartzen ditut zure zergatiak eta onartzen ditut nire
gezurrak
Ez dago adiskidego inuzenterik
Egarriak bilakatu gintuenondako maitale

Hondakinak bota behar dizkizut azalera eta ihes
egin

Nahitarat markaturiko hitzak eta ihes egin
Joa heldua suntsitua izan naizela sinetsarazi behar
dizut

Maitasunak bere garaitzaren frogak nahi ditu
Setatsu gaitu ankerki nau otoitzera behartzen
Nire gezurren hieroglifikoan traba ahal zaitzadan

Ordain garestiak behar ditu aitorpenak amoreak
Behar ditu ez digu sinetsi isiltasunaren amildegian
behera

Hondoratzea dugu ahalbide bakarra bizirauteko

Ez du etsiko gure haragiraino baina ni zure
bihotzaren hondoan nago pozoi

Geure hegazkinen bonben zain Londresko
sotanoetan

Daudenak bezain isil bezain ikaratua ezin dut amore
eman

Golkoan daramadan itsasoan
Ebaki nuen trintxera
Oroitzapenik hartzen ez duelako
Lekuko itsua delako ez duelako gatazken arrastorik
Etengabea zimurtzen du izara maitatu egin garela
sinets dezagun

Itsaso Barea urrun dago ilargia bezain
Ilargian dago Lasaitasunarena
Amorezaren Ataka da hau
Ziega honetatik barrandutzen zaitut
Nahiago nuke Troiako zalditik inoiz irten behar
izanen ez banu

Errealitateak existitzen du badakit
 Azalean ageriko gara sasirik sasi ibili ondoan gora
 Eta goratutakoan gorago edukiko ditugu
 Komandantearen koordenadek agindu dizkiguten
 izarrak

(Milaka swastikaren manifestaldi alaia esanen du
 Reinerrek

Ezagutzen duzu etsaiarekiko adiskidantza aipu zuela
 Gutaz irri maltzurra egiten zuen alu hura)

Gora gora itotakoen amorruan
 Denok urduri sotanotik ohera itzultzen dena bezala
 Geure hegazkinen bonbaketaren ondoren
 Itoak azalera egiten duen amorruarekin
 Denok Papenbergaren orratzari erne
 Berbaz eta isiltasunez pozoituriko airea aldatu
 Elkarri aurpegira behatu ahal izateko lanpara
 argitsuagoen pean

(Eta elkarri ezer esan gabe jarraitzeko gora
 Bestearen ustea igarriz
 Gerla hau galdua dago)

Mezu bat idatzi dut torpedoan
Torpedoa bera mezu bat ez bailitzan
Komandantearen isilean idatzi dut
Ez du urrikalmenik onartzen
Apaiztegitik irtendako gerrilaria da
Gorrotoz hondatu izan ditu ontziak
Gure gerla bidezkoa dela uste du
Ezin konprenituko luke barkamena eskatu behar
dizudala

(— Baina zuek, zer nahi duzue?)

Eta isilik gelditzen nintzen isilik gelditzen nintzen
Geure asmoak aipagaitzak dira
Nire mezuak mezulariarekin batera lehertu behar du
Nire mezua gaztigu berantetsia da
Horrela bakarrik hiltzen ahal zaitut

Zer da hau galdetuko duzu noski
Zer egin dut
Usteko duzu galdetuko dudala nik ere
Amorearteko legedia hautsi duzu esanen duzu

Debekatuak dauzkagu galderak oro
Eta jadanik ikasia naiz neure buruari galdetzen
Debekatu behar diodala lehenik
Zer da hau

(— Stop! Send a boat!
— Send a boat with your papers!
— What ship?
— Abandon ship!)

Niregana baitzentozen ez dut ukatuko
Ontzi edo ontzi izen beti eder beti mezuz
Niregana zentozen ez ezazula uka
Zer da maitasuna galdetzen dut nik
Amore ez ematea besterik

Ihes egin behar dizut
Amorea erakar dezazun baino lehen
Ihes egin behar dizut krimen bat egin dut
Eta ez zaitut haren froga zu ikusi nahi
Ihes egitera behartzen nauzu
Zure malderrak zirimola ez nazan

(Maitasuna kode zaharra da
Bortxazko harremana dugu
Periskoparen koordenadetan zeunden kondenatua
Erabakia neukanaren aurka)

Erabakia neukan guztiaren aurka azaldu zinen zu
Beduin hasiberri ustez eta heriotzaren oasiak lilura
diren

Gerlarako bakarrik balio ote dut
Maitasuna ez da behintzat ahulen arma
Hurbilduko zaizkizu urpekariak mendeen buruan
Ez dizkizute hezurak laztanduko nik bezain

Badakit zure mezua desgiltzatzen
Zalantza guztiak dira tragikoak gerlan
Ziurtasun guztiak dira tragikoak maitasunean
Ezagutzen ditut faroen keinuak

(Komandanteak periskopatik behatzen utzi digu
Hiltzen jarraitzen dugula ziurtatu behar dugu denok
Ezkututik mozorrotuak sinadurarik gabe segaz
ematen dugu epaia

Grafologo baten urrunkeriaz maite gaituzten ala ez
Malmaitatuak bezain anker egin dugu su
Patu gaiztoko ontzi inork maita ez nintzala nahi
nueneko emakume

Komandanteak zorionak eman dizkigu)

Inoiz bizirautea ez da posible
Inoiz mezu giltzatua zuzen izan da ulertua
Gure baitaren hondoan ozentzen dira kargak
Ez ezazu nire alde deklaratu Nurembergen

(Agintaritza Gorenaren azken ordena hartuko
dugu

Ez da klabean etorriko zer ardura etsaiak atzemanik
ere

Telegrafista ez da egonen bere lekuan
Inor ez da bere lekuan egonen eta denok
jazarrerako)

Hondamendiaren lekukoak izanen gara
Baina ez dugu derrotatuen saila abandonatuko
Ez gaituzte baketuko aberriak ez du larderiarik
izanen gutan

Etsaia berbaz izendatuko gaituzte atzamarrak
dardara

Eginen ez badie ere beharko dute oraino bandera
masta erdian paratu

Azalera azalduko gara Bizkaiko Itsasoan
Hegazkin aliatuz saretutako zerupean
Agerian eginen dugu ilunpean hainbat bider eginiko
maniobra

Kapitulazio egunerako prestatua dugun ekintza

Jazarrerako adarrak inoiz baino latzago joko du
Korasta erakutsiko diogu etsai zabalari etsai
korazatuari

(Agintaritza Gorenaren azken ordena hautsiz
Torpedolariak botoia sakatuko du Göring traidorea
fusilatzeko

Urpekontziak eztanda egin behar duela gaztigatuko
dugu

Eta txalupetan urrunduko gara aberri zati honetarik
Maitasunezko mehatxuz bakeak ez gaitzan)

Errudunak ez bagina bezala behar zaitut bat
Dugu maite zaitut guztien urpean
Neu beste amodiorik ez daukat maite zaitut
bakoitzean
Itoaren egarria ase nahi nuke

(Torpedolariak alferrik sakatuko du botoia
Hutsa izanen da maitasunaz geldituko zaiguna
Scapa Flowri buruz hartuko dugu arraunka
Pearl Harbourri buruz hartuko dugu igeri
Maitasun sutuak ez du atzera estrategikorik
onartzen
Menturaz orduan hasiko da benetako gerla)

Gure ontzia aurkituko duenak ez du sekreturik
aurkituko
Ez daukagu ezer etsaiak gutaz ez dakienik
Nitaz ez dakizunik ez daukat
Zutaz ez nuke dena jakin nahi

**MONIQUEREN
ARAOA**

Pastis bat eskatu zuen eta ez Pastis bat
Heriotzatik etorri berria denarendako
Ontziolako teknikariren bat izanen zela pentsatu
nuen

Eta ezentzuna egin ordez eskuz itzuli nizkion
Le Courrier de Dunkerquen ulertzen ez zituen
berbak

Heldu ziren noizbait heriotzatik itzuliak

Eta edaberen bat eskatu zuten heriotzatik
itzuliendako

Barre algarak egin zituzten eta orduan jakin nuen
Eskifaiakoa zela han egona zen urpekontziaren
kubertan Günter

Majoretteok despedida egiten genienean

Heil! egiten zuten musika bandak baino ozenago
Ehorzketarik alaiena zen haien abiatzea

Hilobi batera bezala jaurtitzen genizkien loreak
Uretan gelditzen ziren beti nireak

Itoen alargunenak bezala urteoroko omenaldian

Itzuli zen heriotzatik 145.000 tonaz zamatua
Pastis bat atera nion itxia zegoen arren
Eta ahoz itzuli nizekion Le Courier de Dunkerquek
Ez zekartzan berbak badakizue
Hankak zabal hondoratzen dira jotako ontziak

Ez nuke nahi bakea inoiz hel dadin
Esan zidan itsas zabalean elkar topatzen badugu
Eraso iezadazu esan nion nik
Arrisku bat izanen naiz bandera zuriz
Maitasuna eman nion amorerik ez

Nire maitasuna
Ez da inoiz garbia izan
Nire maitasuna sasikoa da
Ezin liteke agerian eman
Ez iezadazu erronka egin zelai zabaletara
Kulunka egiten duten zorutan baino ez dakit
Ohe bat ez da lur tinkoa
Larruz larru lotzen naiz
Eta horregatik nauzu platonikoa
Biktima neu banintz bezala hartu zintudan
Ziega batean sartu behar du maitatuko nauenak
Ez daki begipean egonen dela
Kamuflatzera behartutako ontzia naiz
Eta begipean dagoela dakienak
Onartuko du sofritzen ikus dezaten
Baina ez dute gozitzen ikusiko
Amore ez emateko busti zintuen
Nire izerdiak
Nire izerdiak
Egin zuen beharrezko zure haragia
Nire izerdi sekretuak

Zuk eraman baninduzu bezala eramanen zaitut
Parisera

Burdinazko gurutzea eman balizute baino harroago
Erakutsi ahal izanen duzu amorante frantses hau
Burdinazko gurutzea eman balizute baino
ikaratuago

Eramanen zaitut eskutik faubourg abertzaleenetan

Eiffel dorrean gora egingen du zure urpekontziak
Eta nire oihu zoroek gailurrean paratu duzuen
bandera inarrosiko dute

Behar adina hordituko gara alemanez kantatuko dut
III. Reich osoak behatuko dizu bekaizgoz nor duk
hori

Eta zuk Mata Hari naizela erantzunen diezu irri
eginen dut

Irri egingen dut nire lana da Parisen
Erreko dugu zure baimen berezia maitatuko zaitut
Hotelik tristenetan maitatuko zaitut heriotzara
Kondenatuaren ziegan sartuko banindute bezain
gozo

Maitatuko zaitut amorruz hil nazazu hil nazazu
erregutzen dizudala

Abertzaleek gorrotoz behatzen didatelako
Errudunaren kontzientzia daukadala pentsa dezazun
Kontsola nazazun Berlinera eramanez baninduzu
bezala eramanez zaitut Parisera
Kondenatuari eman dioten azken desioa banintz
bezala

Maitatuko zaitut eta argazkietan zer edo zeren
oroitzapena geldituko da

Jose Luis Otamendi zor

Lotura honen korapiloa askatu nahi baduzu
Sokaren kabua hartu behar zenuke
Eta haren bilatzeak ez dakizu nora zaramakeen
Ba ote dakizu noraino zaitzakeen hondora
Gure zoramena berba ulergarritara itzultzeak

Hari bakarraz egiten du lana armiarmak
Gauden korapilo posible bat amaraunean
Amorraturiko maitaleak izan gara inoiz
Hasierarik gabeko zortzia
Korapiloek ez dute begirik eta
Zuhaitzetan dagoz berbak
Berkak itsu
Autopsiarako dezagun garbi gorpu hau

Azken hondoan ezin duzu atzera egin nire
lerroetara

Bizia barka diezazudan amorearen truke
Maite izan zaitudanaren aurka zeure buruaren
aurka

Azken hondoan ezin zintezke besterik izan
Azalaren beldur den maitaleak bezala hautatu
zenuen urpea

Norberaren kemenak ez du ezertarako balio azken
hondoan

Babestua zaude ez baitzarete bat-banazka hiltzekoak
Ezin zaituzte lehorreratu ezin duzu ihes egin
Heriotza kolektiboak babesten zaitu
Azalaren ikara ukatu ez bazenu bezala hilen zara

Katibua izanen da beti ahalaz hondorago
Maitatu nahi duena horixe besterik ez zara baina
Behin poema bat eskaini zenidalako gomitatzen
banaute

Jakinen dut disimulatzen zeremonia ofizialean
Hildakoek ez dute inoiz koldarkerian iraun

Oasiko pozoiak ez du indarririk nire gorputzean
Ohitua nago ispilu arrotzenetan biluzten
Etsaiak egin gintuen zu eta ni elkarren
Etsaiak egin zintuen maitagarri
Londresen badakite zer ordutan itsasoratu behar
duzun

Urpekontzia badoa ohetik lekutuko balitz bezala
Eta maitale ukatuak datozkio labanak hortzetan
Hondora dadin baino lehen hondoratuko dute
Eta geltoki ondoko etxera etorriko dira gero
ospatzera
Arriskueta eramaten gaitu beti azalak

Ez dakit zein izeni egon den lotua
Ez dakit zenbat hondotan etzan den
Kommandanturraren lorategian paratu duzuen
aingura

Ontzirik gabeko aingura bezain triste

Non ote duen ontzia pentsatu izan dut
Nongo galernatan dabilen orain
Bere buruaren aingura bilakatu ote den
Aingurarik gabeko ontzia bezain galdua

Bere errotik etendako gezi hondorik gabeko harri
Aingura dela erabaki du norbaitek
Ontziaren berri dakarrena
Edo menturaz hondoarena

Hondoa du amore aingurak
Herdoila atxikiko zaio maitasunari
Bakeak ezinen du babestu maluratik
Ontzia du amore hondoak

Nik nitaz ez diot inori
Nik nitaz barre egiten dut
Neurea kantatzen dut
Nirea entzunez berea ulertzen dutenendako
Gau honetan trengura gutiago baneuka
Zainetarik gora datorkidan inurri gutiago
Eskaintzen ahal nizuen maitasun aitoren bat
Primus circundedisti me xuxurlatuko nizueke
Ezpainak mikroan ongi ipurdituz
Zuetariko bakoitzari esana balitz bezain gozo
Ez dago barkamenik lotsatiendako
Emaiozue kasu Monique barfrau honi
Ikaraz dakienak bakarrik daki maitasunaz
Baina gau honetan nitaz barre
Besterik ez dut egin nahi
Maitasun poema bat xuxurlatzen dizuet
Heriotzatik itzulitakoen artean bazeunde bezala
Nirea entzunez zeurea ulertuko ez duzun arren
Etsaiaren helizea bezala helduko da
Barre bat zure hidrofonoetara

Profilaktiko bat bezala eskaini nizun ezkoa
Gortua behar zenuen nireak ez entzuteko
Ez baitzenuen eskubiderik zalantzak izateko
Zu ez zinen Ulise zu marinela zinen
Ezkoa eskaini nizun zeure burua uka zenezan
Maitasunak ez zintzan ikara
Eta orain debaldetan erakutsiko dizkidazu zauriak
Gerlaroko maitasunaz maitaroko gerla eginik
Nire kantuak Ulise bilakatu bazintu bezala
Ezin dut sirena eta Penelope batera izan

Heriotzatik itzuli ez zarenean
Ontzi etrusko bat ekarri dit
Zure eskuak
Hondorik urrunenean jaso

Bihotza eskuan bezala ekarri dit
Ontzi etrusko bitxi bat
Zure eskuak
Ekarria delako bihotzago

Zure bihotz zartatua balitz bezala
Hartu du ontzia
Nire eskuak
Zartatua delako osoago

Hondamendi baten lekuko
Hustu du zure bihotza
Nire eskuak
Ontzi etrusko bat hartu du

Kantari hasten nintzelarik liluratu egiten ninduten
fokoek

Begiak balira baino biluztenago ninduten
Eta alarmak argiak itzalarazten zituelarik
Linternak ateratzen zituzten ofizial gazteek arauak
hautsiz

Nire gorputza metrailatzeko Atlantikoaren erdian
Atlantikoaren azalean banengo bezala zabal

Utz nazazu hondoraino
Ezagutzen dut han
Inoiz zarratzen ez duen taberna

Orain batzuetan tristura etortzen zait ustekabean
Negarrez hasten naiz malkorik gabe
Pariserako trenaren fistuak abiatzea gaztigitzen
duenean

Panpinatu egiten naiz eta ahotsik zakarrenaz
U-115 urpekontziaren himnoa kantatzen dut
Oroitzapenak hondoratzeko arao ezia

Utz nazazu hondoraino
Ezagutzen dut han
Inoiz zarratzen ez duen taberna
Utz nazazu heriotzaraino
Ezagutzen dut han
Beti zabalik duen maitasuna

Eta maitaleak daramatzen trenaren amorruek
Geltoki ondoko etxe honen argiak ikaritzen
dituelarik

Nire biluztasunak alarma eragiten zuen garaia
datorkit

Koru hordi bat datorkit etsaiaren 636 urpekontzi
hondoratuetarik

Eta orduan bengala gorri bat lanbroan da nire
kantua

**ITSASOA EZ DA
NEUTRALA**

HARK

Beldurtuko gaitu hezurrez hezur
Lotsa ez gaitezen
Elkar biluz dezagun urtzeraino

Urtuko gaitu bihurrez bihur
Lotsa ez gaitezen
Elkar uler dezagun biluzteraino

Biluziko gaitu beldurrez beldur
Lotsa ez gaitezen
Elkar bihur dezagun ulertzeraino

Apurtuko gaitu zuhurrez zuhur
Lotsa ez gaitezen
Elkar makur dezagun hurbiltzeraino

Hurbilduko gaitu gezurrez gezur
Lotsa ez gaitezen
Elkar apur dezagun zuhurtzeraino

Urrunduko gaitu malurez malur
Beldur ez gaitezen
Elkar maita dezagun lotsatzeraino

ZORIONTASUNA HERRI BAKARREAN

Ez ezazuela ezetz esan
Oraindik badago mundu honetan zapaldu gabeko
uharte bat
Inor ez da handik itzuli hori da froga
Gure zain zabal etzana
Urrun

Suntsimenduaren minenean eta garaitzaren
zoroenean ere

Ez ezazuela ezetz esan
Nork ez du amets debekatua egin
Borrokatu behar honetarik
Urrun

Naufragiorik zinikoena antolatuko dugu
Cromagnongo bizkaitarrak bezain zoriontsu bizi ahal
izateko

Ez ezazuela ezetz esan
Aberri guztiez biluzik
Urrun

Eta noizbait lanbroaren erdian azalduko zaigu anker
Uharte urrunenaren bila datorren ontzia
Aberri bat daukagula erakusteko
Ez ezazuela ezetz esan
Hurren

ZAMAREN SEMANTIKA

Hitzarmen guztiak apurtuz
Aliantza berritan elkartzen dira
Ezin zaie zama lotu
Umekiak bezala jotzen dute ostiko
Gure ontziaren zuakerrak lehertu nahirik
Trabes egiten dugu alboraka
Ezin dugu orekarik
Maniobra berriak egitera
Behartzen naute beti berbek

* * *

Poesia arriskutsua da
Orratzaren zuhurtzia baino bortitzagoa da
Esangurak ongi estibatu gabe ontziratzen gaitu
Eta galernak badaki

* * *

Berbak hutsak datoz
Poesiak behar du paradoxa

Berbak hutsak datoz adibidez
Eta portuak esate baterako
Portuak urrun daude

BALDINTZA SUBJETIBOAK

I
Itsas handiak ahoa zabal
Portutik urrun irtenda
Mundu berririk ez dago eta
Loturik hobe omen da
Halere bihotz duenak badu
Barkua non bete berba

Arruta sarri huts egin ohi dut
Oker zuzenduta lema
Ahula baita bizi-faroa
Argitzen duen linterna
Halere garaiz ikasi nuen
Barkua non bete berba

Orratza galdata nork dezake
Portu onean azerta
Laguna uste nuenak maiz du
Nire kontra jo alerta
Halere beti aurkitu ohi dut
Barkua non bete berba

Munduko zazpi putzu gaziak
Ez dira inoiz ur bera
Gu garamatzen ontziak orain
Gorria dakar ubera
Halere jator eskaintzen dizut
Nik barkua bete berba

Hautsiko zaigu erdiko masta
Urratuko zaigu bela
Beldurak digu bilakatuko
Ahoa hitzen logela
Halere ez dut galtzen utziko
Nik barkua bete berba

Itsas hondotik datorren baga
Harkaitzak lezake ema
Inoiz isilduko ez nautenik
Ez dezaket zinez berma
Halere beti ekarriko dut
Nik barkua bete berba

KONTZIENTZIAREN HARTZEA

Eastbourne ez dago Irlandan
Eta faro ingeles bat izan litekeen bezain burgesa da
Eastbourneko faroa
Ez du haren beharrik izanen gure ontziak
Baina hala ere kantu bat merezi du
Eastbourneko faroak
Haren oinarrian jotzen dutenak
Errautsezko olatuak dira

Eastbourne ez dago Galesen
Eta Engels ingeles bat izan litekeen bezain burgesa
zen
Friedrich Engels
Faro batek adina baizik ez zuen ikasi itsasoaz
Baina hala ere kantu bat merezi du
Friedrich Engelsek
Eastbourneko faroan jotzen dutenak
Haren errautsak dira

Eastbourne ez dago Eskozian

Eta itsaso ingeles bat izan litekeen bezain burgesa
da

Eastbourneko itsasoa

Mendebalak ez daki harrotzen bare da beti hemen

Baina hala ere kantu bat merezi du

Eastbourneko itsasoak

Hemen jotzen duten errautsak

Engelsen manifestua dira

Eastbourne ez dago Britainian

Eta olatu ingelesak izan litezkeen bezain burgesak
dira

Eastbourneko olatuak

Menturaz ez dute faroa inoiz suntsituko

Baina hala ere kantu bat merezi dute

Eastbourneko olatuek

Etengabean jotzen dute

Engelsen errautsak balira bezala

Eastbourne ez dago Euskal Herrian

Eta errauts ingelesak izan litezkeen bezain burgesas
dira

Eastbourneko errautsak

Ez dira inoiz berriro sutuko faro egitearren
Baina hala ere kantu bat merezi dute
Eastbourneko errautsek
Olatuan antolatu dira
Itsaso bat direla balekite bezala

LAFAYETTEREN KOPLAK

Hernan Cortes gaur lotua dago
Portu erdiko buietan
Hernan Cortes gaur lotua dago
Portu erdiko buietan
Inperioaren oroimena du
Harrotzen masta goietan

Alarma joko du zentinelak
«Etsaia dator abaor!»
Alarma joko du zentinelak
«Etsaia dator abaor!»
Gerlaontzi bat umeak baitu
Itsasoratu jostakor

Gure ontzira egin dute su
Haren zazpi kanoi beltzek
Gure ontzira egin dute su
Haren zazpi kanoi beltzek
Kanoiek baino gehiago naute
Beldurtzen nire ametsek

Erraz mozten du gure papera
Hernan Cortesen ezpatak
Herraz mozten du gure papera
Hernan Cortesen ezpatak
Nire ontziaren puskak ziren
Arrain berrien ezkatak

Nire portuak herria zuen
Kaietan egin langile
Nire herria portuak zuen
Kaietan egin langile
Grebara deika dabil haizea
Bandera denen garaile

Haizeak Txileko fosfatoa
Zakar sartzen du begian
Haizeak Txileko fosfatoa
Zakar sartzen du begian
Isil-batzarra dute peoiek
Hirugarren biltegian

Alferrik dute jaurti ontzitik
Amarratzeko txikota
Alferrik dute jaurti ontzitik

Amarratzeko txikota
Aho batean erabaki da
Hernan Cortesi boikota

Ederra baita elkartasunak
Ematen duen ikara
Ederra baita elkartasunak
Ematen duen ikara
Gure portutik abiatu zen
Lafayette Amerikara

Nire herriko gazteak doaz
Portutik mundu osora
Nire herriko gazteak doaz
Portutik mundu osora
Lafayette berriz txalupa bete
Gauero da itsasora

AMERIKAREN KONKISTA ZINEZKOA

Poetak poema bat deklamatzeko zuen zubiaz
Joan-etorriko tiketa zuela bere igarobide gorria
Eta poetari handik goitik orratzak iduritu zitzaizkion
haiek

Gure ontziaren mastak ziren baldin
Baldin Maiakowskik Brooklyngo zubia inoiz zapaldu
bazuen

Nire ontzia badoa eta ez dator
Ez dira agurrezko sutunpakadak izanen
Gure kanoi txipiak agurtuko du Askatasunaren
Estatua

Poetak poema eder bat egin dezan baldin
Baldin oraindik bere burua bota ez badu Brooklyngo
zubitik

Kostazainen ezkutuan azaleratuko gara
Manhattan inbaditu behar dugu

Poetek Geronimoren baletarik ihes egin ez dezaten
Brooklyngo zubia apurtuko dugu baldin
Baldin Brooklyngo zubia poema bat baino ezer
konkretuagoa bada

AMERIKAREN KONKISTA
EZINEZKOA
GERTATZEN BADA ERE
KONTSOLAGARRI

Alcatrazko ziega berdetik
Ez da itsasoa ikusten
Ito behar duenak hau du
Itsasoaren hurren

Alcatrazko ziega berdeak
Leihorik ez baitauka
Kondenatuaren ihesa
Beti da hondorantza

Alcatrazko ziega berdean
Aulki bat ez besterik
Borreroaren bihotz ona
Frutaz dago beterik

Alcatrazko ziega berdean
Ume batek nahi du hil
Almendra mikatzak usnatuz
Itsas ordeko lurrin

Alcatrazko ziega berdean
Umea lainoz laino
Euri azido batek dakar
Kantua ontziraino

Alcatrazen aspaldi zuten
Kartzela itxi baina
Han daukagu beti zabalik
Ziega huts berde bana

AZKEN HONDOKO TABERNAN

Azken hondoko tabernan edaten dut
Azken ondokoak garela dakienaren soseguz
Suntsituen hezurak berbatzen diren artean
Inperioaren aurka poesia baliatu behar dugula uste
duten

Nire antzeko inozoak bilatzen ditut

Joanean datorren amorante ukatua naiz
Saritzat emandako maitasuna ez da maitasuna
Ardo amniotiko batean ostrokatu nahi ez dudalako
Poesia gure borroka bera denik uste ez duten
Nire antzeko inozoak bilatzen ditut

Preso makilatuak zuhaitza salatzen duen bezala
Erakusten du zauriak geziaren gramatika
Baina sakrifizioak ez du Jainkoa frogatzen
Martiri batzuk beren fedea baino ederragoak direla
uste duten

Nire antzeko inozoak bilatzen ditut

Autokritika eskatzen dut ez oinazearen mistika
Ahularren kemenak urrikia sor badezake ere
Jokamolde duin baten ordain datza erdi bi egina bou
zaharra

Munduak gu ez maitatzeko eskubidea duela uste
duten

Nire antzeko inozoak bilatzen ditut

Hezurrari grina erantsi nahi dion inozoa naiz
Akelarrea antolatuko nuke Gernika erraustu berrian
Euskaldunek hondoratu duten euskalduna naiz
Sasiko amoranteen hilerri honek beste alderik ez
duela uste duten

Nire antzeko inozoak bilatzen ditut

Ez iezadazue galde nola iritsi nintzen hona
Haginka utzi ninduten liburuek haragirik gabe
Odolaz idatzi behar nuen azken esaldi hura asmatu
baino lehen

Geure buruaz besterik ezin dugula uste duten
Nire antzeko inozoak bilatzen ditut

Nire antzeko inozoak bilatzen ditut

Azken ondotik lehentasun berri bat sortuta

Uhin egin ahal izateko errealitatera
Poesiak bakarrik salba dezake Berlin
Berlinek bakarrik salba nazake ni

UMEAREN HERIOTZA

PORTUAN NERABE

Deitu dute umeak zabaldu du atea txo
Dauka aurrez aurre txo mozkortua du atean
Elkarren luzekoak dira prakak trukatuko dituzte
arratsaldean
Schiff schiff marmarikatzen duela eta emakumezko
izen bat
Lagundu dio eskaileretan zabu egiten
Ikaztegien kaian lotu zuten baforea atzo badoaz
Pirita ekarri du badoaz ontziz beteriko igande
goizean
Bandera guztiak madarikatzen schiff schiff
Ikaztegien kaian Liberiako ontzi zahar bat dago
Alde egina izanen zuela Kielera joana zela
Ez zuen negar egin ganibeta atera zuen
Benetako marinel ganibeta aingurarik gabekoa
giderrean
Zazpi mark pfennig batzuk Camel barraren gainean
Stella Maris apaizen taberna da baina orain meza
ematen ari dira
Portuko ofizialen aurrean Maruxa dago zerbitzatzen
bakarrik gaude

Kopako bana eskatu zion mutikoak Maruxari
Maruxak beha umetxo ez dizuet emanen
Orain ez al duzue etsaiaren dirua hartzen
Erantzun nion txo mozkortuarena ikasten hasia
Eta beste taberna batera egin genuen hanka
Batera egin genuen berba
Elkarren aldekoak ginen Günter zuen izena
Eta geltoki ondoko etxean
Ezindu arte maitatu genuen Monique
Atea jo nuen gurasoenean tatuaiia egin berria
neukan besoa agerian
Schiff schiff marmarikatzen niola zabaldu zidan ume
hari

IRAGANAREN SAUDADEA

Itzuli naiz

Poema baten protagonista bezala

Ez jolasen karrikara

Ez asaben baratzara

Itzuli naiz

Ume bakarti bat izatera

Poemak itzuliko duen portuan

Hemen nire gerlaontzia itsasoratu nuen

Metafora bati bizia ematen niola jakin gabe

Hemen mekanikoen takiletan aurkitu nituen

Besteri ezkutatzeko gozoak

Hemen lehen zigarroa hemen lehen liburua

Hemen lehen hildakoa

Hemen lehen

Kartzelatik irten zenean

Eskua ematera etorri zitzaizkion umeari kalafatariak

Hemen koplaka ikasi nahi izan nuen

Hemen gezurretan ikasi nuen
Hemen bagoi batean egin nuen behin lo
Zamaontzi batean sartuta
Mundua korri joanen nintzelako mehatxua betez
Hemen holandar hordi batek burezurraren
 banderari mun ematen behartu
 ninduen
Hemen ibiltzen zen gauero ume bat
Bitaz bita estatxak askatu nahian
Ontziek ametsak bete ahal izan zitzaaten
Hemen Gineako enborretan zankalatraba nindoan
 zerrategiraino
Hemen zoratu egiten nintzen ahurretarik fuel usaina
 hartuz
Hemen morse zeinuak egiten nizkion Simbadi
Hemen neukan hemen zegoen lotua
Abandonaturik aurkitutako urpekontzi alemana

Portu hau zen nire aberria

Orain galegoz entzun behar nuke
Orain soldadoreak sopletea pizten utziko lidake
Orain karabineroek bart zer ikusi dudan galdetuko
 lidakete

Orain Mariak bularretan estutuko ninduke

Orain beheko tabernara noa

Esan behar lidake Mañuel daiberrak murgil egin
baino lehen

Orain neu nago eskolari piper eginda

Ume batek itsasoraturiko ontziak azaldu behar luke

Matzakuko konbatetik itzulian

Amoreari maitasunik eman gabe

Hemen orain monumentu bat egin diote bakeari
Aingura baten idurian

Hemen orain kaioek arte berriak ikasi dituzte

Milia luzetan doaz lehor barna

Sasikoak gordeak geneuzkan zabortegiraino

Orain kostazaina museoren batean omen dago

Eta ofiziala Galiziako hilerri batean

Espainiako banderan bilduta

Urpekontzia pikategira izan omen zen eramana

Eta nik sinetsiarena egiten dut

Hemen orain draga zaharra lotua dago

Oroitzapenetan harrotzen unatua

Ez dizkit itzuliko hondora utzi nituen biziak

Lau zopa egin ditut itsasgoran txatar pusketa
batekin

Estekarien aurka posturan ibiltzen nintzenean
bezala

Uhinei beha gelditu naiz triste

Idatzi nahi ez dudan kopla bat marmarikatzen

Hemen ez nau inork maite

Ez naiz geldituko

Faroak nagiak ateratzen hasi arte

Ez dut baimenik behar portu itzuli hau ahazteko

Itzuli noa

Poema baten protagonista bezala

ETORKIZUNAREN SAUDADEA

Joseba Sarrionandiari zor

Inoiz porturen bat jotzen baduzu
Beti zabalduko zaizu
Munduko edozein portutan aurkituko duzu
Rue des Basques bat
Ahantz ez dezazun ez zarela
Ziega hartan sartu zinen lehena

Inoiz Newfoundland jotzen baduzu Kanadan
Egina dute lehenago han ere
Ziegan hordituriko zangoek
Rue des Basques bat
Ostera ere ontzi har dezazun
Hemengoa ez zarela frogatzeko

Inoiz Biskay Bayko Baiona jotzen baduzu
Amorezaren ihesi
Zain edukiko duzu itsasoan luzatzen den
Rue des Basques bat
Oroit zaitezten hemen ere
Ez garela geure baitakoak

Rue des Basques bat
Portumundu guztietan
Rue des Basques bat
Euskal Herri guztietan

BETIKO SAUDADEA

Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez da mapa bat ekar diezadazun

Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez da galdu egin naizelako

Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez nabil portu bila

Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Zinez mintzo naiz baina

Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez dut erantzunik behar

Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut

Ez baitut galdera bat egiten
Galdetzen badut
Non dago Basques' Harbour
Non dago Basques' Harbour

SAUDADEAREN AURKA

Adio bost urteen lurraldea
Adio urteak mendiak zirela
Eta adiskideak hilezkorrak uste nueneko nagitasuna
Adio makila bat eskuan munduari atzera
Eraginen niola ziur nengoeneko bakardadea
Adio baforearen uberak
Nire ametsez haratago eramaten nindueneko
xalotasuna
Adio mihia atereaz idazten nueneko poza
Mirail baten aurrean gelditu zen xuka-papera
Eta gauzen elkartze berri bat aurkitu nuen
Posible zela uste izan nuen berben arteko iluna
argitzea
Ulertzen ez nuen guztia alderantziz zegoelako
Hortzetako txantxarra haginlariaren ispilutxoan

Adio hamar urteen lurraldea
Ontzi asko sartu eta irten ziren bokaletik
Mundua nire antzeko umezurtzez betea zegoela
Ikasi nuenerako bonbilak berak zirela mezu
Kontaduria kaier bat eman zidan anaia nagusiak

Lizardiren poemak ziren eskuz kopiatuak
Talaiako arroketan ezkutatu nuen bakarrean
gozatzeko

Eta uda hartako ilunabarretan garratz egin nuen
negar

Euskaraz ez nekielako umezurtza nintzen
Portua bonbila hutsez betea zegoen nire mezuaren
zain

Baina nik ere bonbila huts bat baino ezin nuen
eskaini

Bonbila huts bat nintzen uretara uzkur

Adio hamabost urteen lurraldea

Zazpi kaier berri erosi nituen

Ez dakit zenbat bolaluma desberdin hasi

Lortu nuen marinel panamar batek bere pipa sal
ziezadan

Ilea luzatzen utzi nuen izena aldatu

Baina kaierrak gatzez beteriko kutxak ziren

Berbaren ederra ez zetorren tintaren kolorean

Argi elektrikoaren aitzakia egin nuen gero

Eta behin loak hartu ninduen garra itzalita

Kandela ohepean ezkutatu ahal izan baino lehen

Amak ez zuen ulertu paperean idatzia

Orduan ez nekien arren neure buruari
Igorritako mezua zen kandela erori balitz
Mantek su hartuko zuketan
Bizia arriskatu nuen berbagatik poeta nintzen

Adio hogeitun urteen lurraldea
Senekozuloko laiotzean txibiak pilazka zetozen
Hurbiltzen zitzaizkigun beste txalupak
Eta labar atzera aldegiten genuen guk
Bakarrik egon nahi genuen isilik tristerik
Kulunkaren zorabioan eguzkia Matzakun gorde arte
Ni orduan tankak plagiutzen trebatzen nintzen
Takuboku baino malerusago bizi nintzen behintzat
Koch baziloa bilatzen nuen nire tuan
Hamar berba berri ikasten nituen egunero hil baino
lehen
Behar nuen azken kaier berria bete
Munduko portuetan ez zegoen nik behar adina
bonbilarik

Adio
Ubera bezala urtu ziren urteei
Adio
Arraintxoa eskutik bezala joandako asmoei

Berba berri mordoa ikasia naiz

Eta ez dut sinesten antonimoen simetria

Atzekoz aurrera ere gauza sobera zait ulergaitz

Ez dut uste nahi nukeeneraino bestelakotu ahal
izanen naizenik

Baina adio neure buruari dena den beste nonbait
jaio behar dut

Banoa itsasmugan agertzen hasia den beste lurralde
baterantz

Izendatzen ausartzen ez naizen lurranderantz

METAFORAREN ONTZIA

Lehorreratzen baldin banaiz ate guztiak
Joko ditut galdezka bide hartuko dut basoan
Barrena abiatuko naiz gailurrak iganen ditut
Oihanetan eginen dut lo basamortuan
Fosilduko da nire hezurdura

Lehorreratzen baldin banaiz

Lehorreratzen baldin banaiz
Ez nauzu ulertuko mito zahar
Guztiak suntsitu behar genituela oroitaraziko didazu
Eta horregatik hain zuzen

Lehorreratzen baldin banaiz
Malato zuhaitza aurkitu arte zoratuko zaituztet
Aurkituko dut aurkituko dut eta
Aizkora kenduko diot enborrari
Aizkorak emanen dit haren bihotzaren berri
Aizkorak bakarrik daki

Lehorreratzen baldin banaiz
Itsasketa hau jarraituko dut